

Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz

Céline Mounole

UPV/EHU

Laburpena

Artikulu honen xede nagusia egitura ditransitiboetako adizkien datibo-komunztaduraren agerrerari buruz gogoetatzea da. Laguntzaileen izaera, eta berezikiago, euskararen laguntzaile hirupertsonalena kontuan harturik, proposatzen dugu egitura ditransitiboetan erabiliak diren adizki guztiek (trinkoak eta perifrasiak) ez dituztela baitezpada ez sortze-prozesu berak, ezta kronologia berak ere. Lanean zehar, alde batetik, egitura benefaktiboen tipologiara jotzen dugu joera nagusiez jabetzeko, eta bestetik, euskararen testu zaharrenak miatzen garairik zaharretan datibo-komunztadura nola gauzatzen den ikusteko.

0. Sarrera*

Lan honetan egitura ditransitiboetako datibo-komunztadura ikuspegi diakroniko batetik aztertu nahi dugu. Izan ere, lan sinkronikoak oinarri harturik, euskalaritzak asumitu ohi du egitura ditransitiboetan trinkoek, perifrasiak bezala, datibozko objektuarekiko komunztadura adizkiari datibozko marka bat txertatuz betetzen dutela. Bizkitartean, perifrasiaren izaera eta euskararen laguntzaile hirupertsonalak kontuan harturik, ikusiko dugu bestelako proposamena egin daitekeela eta egitura ditransitiboetan erabiliak diren adizki guztiek (trinkoak eta perifrasiak) ez dituztela baitezpada ez sortze-prozesu berak, ezta kronologia berak ere.

* Artikulu honen egileak ikerketa proiektu eta talde hauen laguntza izan du: *Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (Espainiako MINECO, FFI2012-37696), «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritzak, GIC. IT698-13) eta «Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara» (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

Horretarako, lehen zatian datibo-markatzaileen berreraiketaz erran dena laburbildu ondoan (§1), *-i(n)-*, **eradun*, **edutsi* aditzez arituko gara eta proposamen berri bat eginen laguntzaile hirupertsonalen sorrerari buruz (§2). Hortik, ekialdeko hizkera zaharretan dauden datibo-txandakatzek aztertuko ditugu egitura ditransitiboetako aditz-komunztaduraren hedatze diakronikoa ulertzeko argia eskaintzen dutelakoan (§3). Azkenik, hipotesi berriak euskararen historiako eta kronologiarako dakartzan ondorioak bilduko ditugu (§4).

1. So bat datibo-markatzaileen berreraiketari

Euskararen aditz jokatuaren berezitasun nagusia erabiliak diren egiturako argumentuak (absolutiboa, ergatiboa, datiboa) islatzean datza. Hemen, datibo-markatzaileez eta bereziki haien berreraiketaz arituko gara.

Datibo-markatzaileak, izen-ordainen klitikotzearen ondorioz sortuak dira. Gutxienez, pluraleko pertsona-izenordainen eta haien datibo-markatzaileen arteko harremana gardena da: *zu* → *diozu*, *zuek* → *diozue*, *gu* → *diogu*. Beste pertsonetako datibo-marken jatorria ilunagoa da. Singularreko lehen eta bigarren pertsonetako *-da* eta *-*ga/-na* atzizkiek ez dute beren oinarria *ni* eta *hi* pertsona-izenordainetan, eta beste azalbiderik aurkitzen ez zaien bitartean, Gómez & Sainz-en bidetik (1996), **da* eta **ga / *na* izenordain zaharrak direla erranen dugu, garai urrun batean aditzean klitikotu zirenak, eta *ni* eta *hi* izenordainen onetan desagerturik, aditzean fosildu zirenak.

Hirugarren pertsonari dagokionez, singularreko *-o* eta pluraleko *-e* erakusleekin lotuak izan dira (Gómez & Sainz 1996: 251). Zehatzago, *-o* atzizkiak, *hau(r)* eta *hori* lehen eta bigarren graduko erakusle singularretan duke bere oinarria, pluraleko *-e* atzizkiak, berriz, **hai* (cf. *haiek*) erakusle pluralean. Gure ustez, proposamen hori oraindik findu behar litzateke. Lehenik, esplikatuz behar litzateke zergatik singularreko eta pluraleko datibo-markatzaileak graduko desberdinetako erakusleetan oinarritzen diren. Bigarrenik, Manterolaren arabera (prestatzen), 3. graduko erakusle pluralearen forma zaharrena *hek* bada —eta *haiek* hartatik eratorria (<**hai-hek* proposatzen du)—, ez dugu *ai* > *e* kontrakzioaren beharrik eta **he-* proposa daiteke.

Datibo-komunztaduraren kronologia erlatiboari dagokionez, datibo-markatzaileen atzizki-izaerak ordurako euskara OV motatakoa zela erakuts lezake (VO → OV ordena-aldaketa gertatua zela), eta hortaz, gutxienez komunztadura aurrizkiak dituen absolutiboa baino geroago sartu zela aditz jokatuan. Datibo-markatzaileen berankortasunaren alde egiten du baita ere ekialdeko hizkeretako datibo-komunztadura ahulak (ikus behe-
rago §3).

Datibo-komunztadura trinkoetan baina baita perifrasiatako laguntzai-leetan ere betetzen da. Aitzineko lan batean (Mounole 2006) proposatu genuen trinkoak eta perifrasiak ez direla garaikideak, eta perifrasiaren artean ere kronologia desberdinak ditugula. Mailakatze kronologiko desberdin horiek datibo-komunztaduraren hedapenean eraginak izan ditzaketelakoan, trinkoak eta perifrasi desberdinak bakoitza bere aldetik aztertu behar direla uste dugu.

2. *-i(n)-*, **edutsi*, **eradun* laguntzaile hirupertsonalak

Euskara arkaikotik hona, *-i(n)-*, **edutsi* eta **eradun* aditzak etengabe lekukotuak dira. Gainera, testu zaharrenetan, laguntzaile erabileraz gain, aditz beregain gisa ere agertzen dira.

Haien etimologiari dagokionez, hiru horietarik bi **edun* aditzetik erator daitezke. Izan ere, **eradun* haren kausatibo da, eta **edutsi*, berriaz, **edun-i -tz* atzizkia eta *-i* partizipio-marka gehiturik sortu zatekeen (**edun-tz-i*). Txistukari afrikatuaren neutralizazioa aditz-izenaren eratorpenarekin gertatu zatekeen (**edunts-te*), eta gerora partizipiora hedatu (**edu(n)tsi*) (Lakarra 2006). Hirugarren aditza, *-i(n)-*, haren higadura dela kausa, nekez lot daiteke segurtasun osoz **edun* aditzari.¹ Azkuek (1935: 79) eta Lafonek (1944-I: 430) *egin* aditzarekin parekatu zuten, eta berrikiago, de Rijk-ek (1985) eta Comrie & Aldaik (2002) *jin* aditzarekin lotu dute.²

Jarraian, aditz hauen erabilera trinkoa (§1) eta perifrastikoa (§2) aztertuko ditugu bederazka.

2.1. Erabilera trinkoa

XVI-XVII. mendeetako testuetan, *-i(n)-*, **edutsi* eta **eradun* aditzek erabilera beregaina dute. Trinko gisa agertzen diren guztietan, hiruek *emaitza* adierazten dute, edo ‘eman’ aditzaren sinonimoak dira (1-7).³ XVIII. mendean,

¹ Schuchardt-ek (1900: lxxiii) hori bera proposatu zuen.

² Proposamen batak zein besteak arazo fonetiko handiak dituzte.

³ Ez dira, noski, *emaitza* adierazten duten aditz bakarrak. Hauekin batera, *-ngu-* erroko aditza (*othoy iauna enguztaçu lagun çure saynduyac* Etxp I: 72, *Vste duc ecin othoitz daidiodala orain neure Aitari, eta baitinguzquet bertan hamabi legione baino guehiago Aingueru ?* Leiz, Mt 26-53, *çoazte baquerequin, bero çaitzte eta asse çaitzte : eta eztinguzteçuen gorputzaren necesario diraden gauçac, cer probetchu duqueite ?* Leiz, Iac II, 16), eta eman (*Aramayo, dabenac ez lemayo RS 284, Harc ehorri eztemayo oren baten epphia* Etxp I: 148, *Antxo limosnari, urde eba-tsiaren oinak dematza beharrari Oih Prov 28, Jaun Cerucoac oni demala / bici ona ta lucea* Laz A24: 123-124) erabiltzen dira testu arkaikoenetan (ikus Lafon 1944-I: 228-255, 429-430).

aditz hauen erabilera beregainak gero eta urriagoak dira: anitzetan expresioetan fosilizaturik agertzen dira (8-10).

- (1) Esquerric asco **devstet** (Zum. 40)
- (2) Linda damea, asco **deusut** / nic aregaiti esquerric (Laz. A23: 27-28)
- (3) Nic **draudaçut** fede (Espar. *TAV* 144)
- (4) Jatean **drauco** bicia (1609, *TAV* 114, 154)
- (5) **Ikedak** ta **dikeada** (*RS* 233)
- (6) Bada hacia ereilleari fornitzen draucanac, ogui-ere iateco **diçuela** (Leiz. 2 Cor., 9, 10)
- (7) **Yndasu** espillua ta artasiac daguida ondo ymini bissarrau (Mik. 24)
- (8) eskerrac **deitçugu**, ô guiçonen creaçale eta arrerosle maitia, ceren çoure caritatiaren mundu orori eracousteco, aihari handi bat adelatu beiteicuçu (Mzt. IV, ch. XI, 5381)
- (9) Hargatic, bere gendaquiari edo bere umei **deraue** obligacino guti (ES, Hats. 275)
- (10) Milla million esquer **darotçut** garacia hunetaz (ES, Hats. 302)

Aditz hauen euskalki-banaketari dagokionez, ekialdeko hizkerek *-i(n)-* eta **eradun*, eta mendebaldekoek *-i(n)-* eta **edutsi* erabiltzen dituzte. Zehatzago, bi euskalki-multzoetan *-i(n)-* erabiltzen da nagusiki, eta **eradun* —ekialdean— eta **edutsi* —mendebaldean— bakanagoak dira. Ondoko taulak, xv-xvi. mendeetako testuek dakartzaten aditz hauen agerraldiak biltzen dituzte.

1. TAULA
-i(n)- aditz beregainaren agerraldiak xv eta xvi. mendeetako testuetan

*i(n)	niri	hiri	hari	guri	zuri	zuel	haici
Etxepare	<i>didan</i> (I-194, XIII- 44, I-444) <i>ydaçu</i> (I-61, 64, 190, XIII-15, XII-19) <i>badidaçu</i> (I-399)			<i>digun</i> (II, 91)	<i>dizun</i> (Esk, 30)		
Leizarraga	<i>eztidala</i> (Gal 6-17) <i>lidan</i> (Apoc 10-8) <i>indac</i> (Mt 14-8, Lc 15-12, Io 4-15), <i>indan</i> (Io 4-7, Io 4-10), <i>indaçe</i> (Act 8-19)			<i>digula</i> (ABC 1413-10) <i>digunçat</i> (Cat 1314-26) <i>ligunçat</i> (Adv 271-16, Cat 1351-11) <i>ignic</i> (Mt 6-11, Lc 11-3...) <i>iguçue</i> (Mt 25-8)		<i>diçuela</i> (Rom 15-5, 2Cor9-10...) <i>diçuençat</i> (Eph 1-17)	
Lazarraga	<i>ezindan</i> (A26: 55), <i>liquet</i> (A7: 79, A23: 163), <i>indaçu</i> (AL: 1144v, B3: 51, 71, A6: 30, A10: 19), <i>dindala</i> (A24: 111, A17: 65).		<i>liqueoela</i> (A21: 11)	<i>digun</i> (A28: 145)	<i>diçudan</i> (B16: 39)		<i>diela</i> (A10: 31)
RS	<i>Yndac</i> (174), <i>yquedac</i> (233), <i>yndaüz</i> (429, 556), <i>baçint</i> (409), <i>balinde</i> (91)	<i>dienean</i> (192), <i>di-quec</i> (265), <i>diada</i> (174), <i>diqueeada</i> (233)		<i>eguzu</i> (304), <i>baniqueçu</i> (91, 409)			
Oihenart	<i>indak</i> (30), <i>izitadan</i> (690), <i>didala</i> (635)						
MLast				<i>diguela</i> (32)			
Naf.				<i>yguçu</i>	<i>diçula</i>		

2. TAULA

***eradun** aditz beregainaren agerraldiak xv eta xvi. mendeetako testuetan

*eradun	niri	hiri	hari	guri	zuri	zuei	hai <i>i</i>
Etxepare	<i>derautacu</i> (IX, 25)		<i>daraucate</i> (III, 34)				
Leizarraga	<i>drauagu</i> (ABC 1412-23) <i>drauzquiagu</i> (Apoc 11-17)	<i>draucat</i> (Rom 1-8) <i>drauca</i> (Lc 17-9) <i>draucana</i> (Io 6-33)	<i>draucagu</i> (Cat 1355-5) <i>drauzquite</i> (2Cor9-12)	<i>draucu</i> (Som 278-3) <i>draucun</i> (Adv 268-35)		<i>badraucuet</i> (Lk 10-19)	<i>drauec</i> (ABC 1410-27)

3. TAULA

***edusi** aditz beregainaren agerraldiak xv eta xvi. mendeetako testuetan

*edusi	hari	zuri	hai <i>i</i>
Lazarraga	<i>deusadan</i> (AL: 1147v), <i>ezteusala</i> (A23: 51)	<i>deusut</i> (A14: 14, A23: 27), <i>deusudan</i> (AL: 1151v)	
Zumarraga			<i>deusitet</i> (40)

Comrie (2003) azaltzen du hizkuntza askok suplezio-kasuak erakusten dituztela *emaitza* adierazten duten aditzen paradigmetan. Haren arabera, delako suplezioa datibo-objektuaren izaerak baldintzatua da, eta eratzen duen tipologia oinarri harturik, hiru suplezio-mota daude munduko hizkuntzetan: (i) datibo-objektua lehen edo bigarren pertsonakoa duten adizkiek erro bera dute, baina beste erro bat dago hirugarren pertsonakoa duten adizkien oinarrian —cf. besteak beste, Tsezic hizkuntzak (Nakh-Dagestandar hizkuntzak), India Hegoaldeko hizkuntza dravidar zenbait (Malayalamera, Yukaghirera...), Lepchka (Tibet-Burmantar hizkuntzak)—; (ii) lehen pertsonako datibo-objektua duten adizkiak erro batekoak dira, bigarren eta hirugarren pertsonetakoek, berriz, beste erro bat dute oinarrian —cf. maoriera, kenuzidongola (nubian hizkuntza)—; (iii) azkenik, arraroa izanagatik, badira hizkuntza batzuk erro desberdinak darabiltzatenak kasik pertsona-numero konbinaketa bakoitzarendako.

Euskara Arkaikoaren datuetara itzulirik, taulek iradokitzen duten bezala, Etxeparek eta Leizarragak ez dute *-i(n)-* erabiltzen NORI 3. pertsonakoa delarik (singularra zein plurala), eta horren ordez, **eradun* aditzera jotzen dute (*daraucate, draucat, drauca...*). Lazarraga salbuespena dugu, **edutsi*-rekin batera, *-i(n)-* erabiltzen baitu 3. pertsona singular eta pluralarentzat (*deusadan, ezteusala; liqueoela, diela*). Beste pertsonetarako dagokienez, zaila da orokortzerik egitea banaketa desberdina dugulako autoreen arabera: Etxeparek *-i(n)-* dauka *gu* eta *zu* pertsonekin (*digun, dizun*), eta *-i(n)-* zein **eradun* aditzak *ni* pertsonarekin (*didan, badidaçu; derautaçu*); Leizarragak, berriz, *-i(n)-* erabiltzen du *ni* pertsonarekin (*eztidala, lidan*), **eradun* aditza *hi* pertsonarekin (*drauagu, drauzquiagu*), eta *-i(n)-* zein **eradun* aditzak *gu* eta *zuek* pertsonekin (*digula, digunçát, diçuela, diçuençát; draucu, badrauçuet*). Datu hauek Comrie eskaintzen duen tipologiarekin konparaturik, ez dirudi euskara arkaikoa hiru multzoetarik bakar batean sartzen denik. Izan ere, ekialdeko hizkerek 3. pertsona singular eta pluralarekin *-i(n)-* saihestu eta **eradun* erabiltzeko joera izanagatik, beste pertsonetarako dagokienez, banaketa ez da hain argia. Gainera, mendebaldean ez dugu murrizketarik ikusi Lazarragaren argitan.⁴

Azkenean, banaketa honetatik atera daitezkeen ondorioetatik ondokoak iduritzen zaizkigu deigarrienak: (i) euskalki arkaiko guztietan *-i(n)-* aditzak du agerraldi gehien, eta **eradun* (ekialdean) eta **edutsi* (mendebaldean) adi-

⁴ Comrie & Aldaik (2002), Comrie (2003) oinarri harturik, euskara arkaikoan dauden *-i(n)-* eta *eman* aditzen arteko banaketa ikertzen dute. Erakusten dute *-i(n)-* lehen eta bigarren pertsonekin (singularra eta plurala) eta hirugarren pertsona pluralarekin (*diet, diezu, diegu*) erabiltzen bada, ez dela sekula NORI 3. pertsona singularrekoarekin (*diot, diozu, diogu*) agertzen, horren ordez, *eman* aditza erabiltzen baita (cf. *eztemayo* Etxp. I, 148). Hortik ondorioztatzen dute euskara, Comrie proposatu lehen taldearekin bat datorrela, nahiz eta ez erabat, 3. pertsona pluraleko datibo-objektuak *-i(n)-* hartzen baitu eta *eman*-ek 3. pertsona singularraz gain beste pertsonak ere hartzen baititu.

tzek maiztasun apalagoa dute ; (ii) ekialdeko hizkerak 3. pertsona singular eta pluralarekin *-i(n)-* saihestu eta **eradun* erabiltzeko joera dute. Ondoko atalean itzuliko gara datu hauetara.

2.2. Laguntzaile-erabilera

Erabilera trinkoaz landa, *-i(n)-*, **edutsi* eta **eradun* egitura ditransitiboetako laguntzaile gisa ere agertzen zaizkigu. Gainera, hauekin batera, **edutsi*-ren kausatiboa dirudien **eradutsi* aditza ere biltzen da Lazarragaren eskuizkribuan (*deraustae* ‘die’ Laz, B22: 71). Zehatzago, ondoko hiru perifrasi hauen laguntzaileak dira: perifrasi burutugabea (aditz-izena inesiboan aditz nagusitzat duena, *ematen dio*), perifrasi burutua (partizipioa aditz nagusitzat duena, *eman dio*), geroaldiko perifrasi (partizipio prospektiboa aditz nagusitzat duena, *emanen dio*). Delako erabilera testu arkaikoenetatik lekukotzen da, nahiz eta ekialdean, datibo-komunztadura falta dela kausa, ez den beti tinkoa (ikus §3).

- (11) Andre eder gentil batec vihoça **deraut ebaxi** (Etxp. V, 1)
- (12) Hi arraza handiko, ni seme jauregiko, egur hori nork **drauku hau-tsiko?** (Oih. *Prov.* 231)
- (13) essaten **diot**, jauna, orrec **essaten didan** guçiarı bayez (Tolosa)
- (14) bustnazanean zure graziak / **kenduko diraust** kulpa guztiak (Salm. Mis. 17-18)
- (15) çuri **emayten deusuguz** zizpuruac (Bet. 94)
- (16) çure llantu dolorosooc / **emaiten deustae** contentua (Laz. AL: 1143r)

Laguntzaile izan ala aditz beregainak izan, aditz hauek euskalki-banaketa bera dute. Lehenik, **edutsi* laguntzailea mendebaldeko testuetan baizik ez da aurkitzen (Abend, Last, Frantz, *RS*, Zum, Bet, Laz), **eradun*, aldiz, ekialdeko (Etxz, Etxp, Leiz, Oih, Beor, Olaz, Bak, Esp) eta erdialdeko idatzietan (SalmMis). Azkenean, *-i(n)-* da hiruen artean euskalki guztietan lekukotzen den laguntzaile hirupertsonal bakarra.

Haatik, laguntzaileen arteko banatzea ez dator bat aditz beregainen arteko banatzearekin. Gorago ikusi dugun bezala, euskalki arkaiko guztiek *-i(n)-* aditza hobesten dute *emaitza* adierazteko, eta, hortaz, **edutsi* —mendebaldean— eta **eradun* —ekialdean— bakanago erabiltzen dituzte. Laguntzaile-erabilera alderantzizko joera dakar: mendebaldeko testu arkaiko gehienetan, **edutsi* laguntzaile hirupertsonal bakarra da (*deustac* ‘didak’ Abend 7, *deusut* ‘dizut’ Frantz, *deuso* ‘dio’ *RS* 519)⁵ eta ekialdeko testuetan **eradun* laguntzaile hiru-

⁵ Bizkaieraz, *-i(n)-* laguntzailea bi aldiz baizik ez da agertzen (*arloteari emayoc ar[r]auça, escatuco dyc zoça* *RS* 25, *Aurquitu dau Lastur-en torre barria / edegui dio almeneari erdia* Last. 10-11).

pertsonal nagusia da (*deraut* ‘dit’ Etxp, V: 1, *drauku* ‘digu’ Oih *Prov* 231). Goi-nafarrerazko testu arkaikoetan, aldiz, **eradun* eta **i*, bata bestea bezainbat erabiltzen dira (*derauçut* Beor, *drauçut* Esp / *didate* Olaz, *diezcun*, *dizquigueney* GurAit) ; bizkitartean, neke da joera orokorrik ikustea esku artean ditugun testu gehienen jatorri zehatza ez dugulako ezagutzen.

Supletibotasunaz den bezainbatean, **eradun* laguntzaile nagusizat duten behe-nafarrerak eta zubererak *-i(n)-* bakarrik erabiltzen dute datibo-objektua 3. pertsonakoa denean (*dio* Etxp XIV, 4 ; *diozta* ‘dizkio’ Oih *Prov* 563). Bestela erranik, berriz ere erabilera beregainaren alderantzizko joera dugu hizkera hauek **eradun* baizik ez baitute erabiltzen beregain gisa NORI 3. pertsonakoa denean. Gipuzkeraz, *-i(n)-* laguntzaile hirupertsonala da nagusi (*dio*, *didan* Tol), eta **eradun* NOR objektua pluralekoa denean baizik ez da agertzen⁶ (*diraust* ‘dizkit’ SalmMis 22). Zoritxarrez, erdialdeko testu arkaikorik ez daukagu erabilera beregainarekiko konparaketen egiteko. Azkenik, Lazarragaren testuan, **edutsi* eta **i* aldizkatzen dira, baina ez dirudi arau berezirik dagoen bakoitzaren erabileraren oinarrian: *deustaçu* (Laz, A2: 17) / *didaçu* (Laz, A3: 24) ; *deusut* (Laz, A17: 42) / *diçut* (Laz, A23: 19), *eustan* (Laz, B14: 33) / *cidan* (Laz, A7: 21).

2.3. Ondorioak diakroniaz

Euskararen laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz aritu aitzin, oroitarazi behar da aditz laguntzaile guztiak aditz beregainetatik heldu zaizkigula (Anderson 2006; Heine 1993; Kuteva 2001). Hobeki erranik, egitura perifrastikoak egitura konplexuetatik datoz: hastapenean egitura konplexuko aditz beregaina zena egitura bakuneko —perifrastikoko— aditz laguntzaile gisa berranalizatzen da.

Hainbat ikerketa tipologikok erakutsi dute egitura benefaktibo askoren oinarrian *emaitza* adierazten duen aditza dagoela (Anderson 2006; Creisels 2006 2010; Steever 1980). Hori bera erakusten dute tamiler (dravidar hizkuntza), mongoliera (mongoliar hizkuntza, altaikoa), beria (nilo-saharar hizkuntza), tuvera (turkiar hizkuntza, altaikoa), tofalar (turkiar hizkuntza, altaikoa), eta Ekuadorgo espainiera (erromantzea) hizkuntzen perifrasi benefaktiboek. Egitura hauetan, *emaitza* aditzak, perifrastiko laguntzaile gisa berranalizatua dena, egiturako aditz nagusiak adierazten duen prozesuaren helburua adierazten du. Beherago, tamileraren (17) eta Ekuadorgo espainieraren (18-19) adibideak dakartzagu:

⁶ XVIII. mendearen bigarren erditik aitzina, delako erabilera urrituz joan zen baina ez zen guztiz desagertu. Izan ere, Ariztimuñoren ustez (k. p.), gipuzkera modernoaren adizki batzuk **eradun*-en bidez esplika daitezke, ad. *diozka* (*diuzka* < *diauzka* < *dirauzka*). Lakarrak (2011: 197) delako hipotesia *dizku*, *dizt* eta « barneko *z* plurala » duten adizkiei ere hedatzea proposatu du.

- (17) Raajaa kumaar-ukuk katav-ait tirand-u kodutt-aan
 Raajaa Kumaar-DAT ate-ACC ideki-CONV eman-PAS.S3SM
 'Raajaak Kumaarri atea ideki dio' (Creissels 2006-II: 80)
- (18) Me dio cocinando a mí
 'Sukaldatu dit' (Haboud 1998: 215)
- (19) Me da haciendo el pan mientras yo lavo
 'Ogia egiten dit garbitzen dudan bitartean' (Haboud 1998: 215)

Laguntzaileak agertzeko moduak, egitura benefaktiboez egindako ikerketa tipologikoek, eta *-i(n)-*, **eradun* eta **edutsi* aditzen erabilera —eta batio— beregainak bultzatzen gaituzte euskarazko egitura hirupertsonalen jatorria *emaitza* adierazten duen egitura konplexu batean bilatzera. Hastapen batean, egitura biperpausduna genukeen; aditz nagusiak *emaitza* adierazten zukeen, eta haren osagarria, aditz jokatu-gabea buru duen perpaus bat zatekeen. Gerora, egitura konplexua perifrasi gisa berranalizatuko zen, delako aditz jokatu-gabea perifrasi aditz nagusi gisa, eta *emaitza* aditza haren laguntzaile gisa berranalizaturik:

[aditz jokatu-gabea] + [-i(n)-/ *edutsi/*eradun] > [aditz jokatu-gabea + -i(n)-/ *edutsi/*eradun laguntzailea].

Gorago erran dugu *-i(n)-*, **eradun* eta **edutsi* hiru perifrasi agertzen direla: perifrasi burutuan (*egin dio*), perifrasi burutu-gabean (*egiten dio*) eta geroaldiko perifrasiaren (*egingo dio*). Une honetan ez genekike erraten egitura benefaktiboa lehenik aditz nagusi batekin sortu zen eta geroago besteetara analogiaz hedatu zen, ala hiru egituretan batera agertu ote zen.

XVI. menderako *-i(n)-*, **eradun* eta **edutsi* aditzen gramatikalizazioa biziki aitzinatua zen: hiru aditz horien forma jokatu-gabea ez da nehon lekukotzen, eta testu arkaikoenetan agerraldi beregain batzuk izanagatik, azkenak dira, XVIII. menderako espresioetan fosilizatuak baitira. Aditz hauek euskalkietan duten banaketak ere hori salatzen du: mendebaldean, **edutsi* da laguntzaile hirupertsonal nagusia, eta haren gramatikalizazioa biziki aitzinatua delako seinale, *emaitza* trinkoki adieraztekotan *-i(n)-* erabiltzen da —**edutsi*-ren ahurtara bat adibide kenduta—. Halaber, ekialdean, **eradun* laguntzaile hirupertsonal nagusia da, eta nahiz eta erabilera beregainaren lekukotasun andana bat badugun, *-i(n)-* hobesten da *emaitza* adierazteko. Murrizketa horiek oro perifrasiaren gramatikalizazioaren ondorio ezagunak dira (cf. Anderson 2006; Heine 1993; Kuteva 2001); aditz bat laguntzaile gisa gramatikalizatzen denean, emeki-emeki autonomia sintaktikoa eta semantikoa galtzen ditu.

Ekialdeko hizkeretan datibozko objektuaren izaerak gidatu laguntzaile-banaketa ere gramatikalizazio-prozesuaren ondorio bezala ikus daiteke: laguntzailearen paradigma supletiboa (**eradun* erroko adizkiak na-

gusi, baina *-i(n)-* errokoa NORI 3 pertsona singularrekoa delarik) nahiko gramatikalizatua izan behar zen erabilera trinkoan alderantzizko bana-keta eragiteko. Gure ustez, datu ezin utzizkoa da Comriek (2003) proposatu *emaitza* aditzen tipologiari begira. Izan ere, egitura benefaktiboetako laguntzaileak *emaitza* aditzetatik eratortzeko joera badute, eta *emaitza* aditzek beren paradigmetan suplezioak izateko joera badute, laguntzaile benefaktiboetan izan daitezkeen suplezio-kasuak hizkuntzaz hizkuntza aztertu behar lirateke Comriek eratu aditz beregainen tipologiak laguntzaileetarako balio duen ikusteko, eta bat etortzerik ala, euskaraz bezala, alderantzizko banaketarik dagoen argitzeko.

Euskara arkaikoak *emaitza* adierazteko aditz bat baino gehiago zuen, eta horren ondorioz, laguntzaile hirupertsonal bat baino gehiago ere bai. Haatik, euskalki-banaketak iradokitzen du hiru aditzek ez dutela kronologia bera. Euskalki arkaiko guztiek *-i(n)-* laguntzailea hein batean ala bestean erabiltzeak bultzatzen gaitu pentsatzera Mitxelenak (1981) proposatu Euskara Batu Zaharraren garaikoa dela. Alderantziz, **edutsi* mendebaldeko testuetan, eta **eradun* erdialdeko eta ekialdeko testuetan bakarrik erabiltzen diren ber, bereizketa dialektalaren ondotik sortuak dirateke. Ondorioz, Euskara Batu Zaharraren ondotik gramatikalizatuko ziren laguntzaile benefaktibo edo hirupertsonal bezala, bakoitza bere aldetik.

Azkenik, proposamen honek ondoko ondorioak ditu euskal aditzaren morfologiaren historiarako: trinkoetan eta perifrasi modaletan ez bezala (aditzoina + **ezan*, partizipioa + *egin*), indikatibozko perifrasietan komunztadura hirupertsonala ez zen sortu datibo-objektuaren marka **edun* laguntzaileari txertatuz (ikus §2), baizik eta *emaitza* oinarri duen egitura konplexu bat egitura benefaktibo gisa berranalizatuz. Horrek ez du kentzen gutxienez **eradun* eta **edutsi* etimologikoki **edun* aditzari lotuak izatea, garai desberdinetako gertakariak bide baitira.

3. Kronologiarako pistak: datibo-komunztaduraren gorabeherak

Atal honetan, laguntzaile hirupertsonalen kronologiaz zer erran handia izan dezaketelakoan, datibo-komunztaduraren gorabeherak aztertuko ditugu.

Ezaguna da ekialdeko hizkeretan (BN, GN, Z) datibo-komunztadura ez dela biziki tinkoa hala egitura iragangaitzetan, nola iragankorretan. Azken urteetan delako gertakaria aztertu dutenek erakutsi dute datibo-komunztadura falta ez dela maila berekoa bi egituretan, egitura iragangaitzetako datibozko terminoak argumentu oso bat baino lokatibozko postposizio bat baitirudi (Etxepare & Oihartzabal 2008 2013).

Hemen, egitura ditransitiboak ditugu ikusmiran, eta berezikiago ekialdeko testu zaharretan datibo-komunztadura nola gauzatzen duten. Horretarako, garai eta gramatikalizazio-prozesu desberdinek eraginikoak direlakoan, trinkoak

eta perifrasiak bereziko ditugu. Gainera, perifrasieta, alde batetik, **ezan* laguntzaileduak eta bestetik, *-i(n)-* eta **eradun* laguntzaileduak (edo **edun* laguntzaileduak, komunztadura falta denean) banatuko ditugu. Gisa horretan, espero dugu hiru adizki-multzo horien artean desberdintasunik baden neurtu ahal izatea, eta hortik, ondorioak eskaini datibo-komunztaduraren kronologiari buruz.⁷

Aztertutako testuak ondoko hauek dira: XVI. mendean, Etxepareren liburuak (BN), Etxauzen gutuna (BN) eta Oihenart (BN) eta Zalgizeren errefracuak (Z).⁸ Garapen diakronikoaren norabidea aztertu ahal izateko, XVIII. mendeko Maizter zuberotarraren *Imitacionea* eta Elizalde goi-nafartarraren dotrina ere aztertu ditugu.

3.1. XVI. mendea

Etxepare, Zalgize eta Oihenarten testuetan, egitura ditransitiboetako aditzek ez dute beti komunztadura markatzen datibozko sintagmarekin.⁹

- (20) Sainduier ere **egin ezak** heure ezagutzia (Etxp. I, 53)
- (21) Arrazoin da mundu orok **dagien** zuri ohore (Etxp. II, 109)
- (22) Hi handi, ni handi, / Nork **erranen du**, gure astoari harri ? (Zalg. 147)
- (23) Hobe liçate venturaz indarrari, sustantiuoac **inhardets deçan** berceari (Zalg. 1)
- (24) Ogen **egiten du onei**, barkatzen duenak **gaxtoei** (Oih. Prov. 654)
- (25) Nabusitarik gertatzen da zerbitzari, bere sekretua **agertzen duena** motilari (Oih. Prov. 321)

⁷ *Eman*-en adizkiak gure ikerketatik baztertu ditugu frankotan ilunak baitira datibo-komunztadurari dagokionez. Mitxelenak erakutsi bezala (1954), egitura ditransitiboetan erabili *emak*, *demala* formek ez dute baitezpada datibo-komunztadura falta islatzen, datibo-marka bokal-multzo bat bakuntzearen ondorioz desager baitzitekeen (**emaok* > *emak*, **demaola* > *demala*). Gainera, gisa bereko adizkiak biltzen dira datibo-komunztadura derrigorrezkoa duten duten euskalkietan: *RS (Demanac bician vereá besteri, doque negarra veti RS 325 «Quien diere en vida lo suyo a otro, tendrá lloro siempre», Emayten deusenari, demaen leguez arbez RS 454 «A quien se lo dan, tómelo como se lo dieren»)*, Lazarraga (*Jaun Cerucoac oni demala / bici ona ta lucea* Laz. A24: 123-124).

⁸ Etxauzen gutunak datibo-komunztadura faltaren adibide bat baizik ez du eskaintzen: *Ene escusac, othoy, aytari eta amari ygor yçaçu, ahalic eta hobequiena* (Etxauz 26-27). Leizarragaren itzulpenetan egitura ditransitiboetako aditza bere argumentu guztiekin komunztatzen da.

⁹ Datibozko komunztadura betetzen duten egitura ditransitiboaren artean, datibozko sintagma adierazten dutenak izanagatik, gehienek isiltzen dute: Etxepare 9/45 sintetikoetan, 4/10 *-i(n)-* eta **eradun* laguntzaileduetan eta 0/3 **ezan* laguntzaileduetan; Oihenart 7/15 sintetikoetan, 1/2 *-i(n)-* eta **eradun* laguntzaileduetan, 1/2 **ezan* laguntzaileduetan; Zalgizeren errefracuetan, datibo-komunztadura betetzen duen adibide bakarrean datibozko sintagma adierazia da.

Behako bat eman diezaiegun ondoko taulei:

4. TAULA

Datibo-komunztadura Etxepareren testuan

Etxepare	Trinkoak	-i(n)-/*eradun	*ezan
Komunztadura	45	10	3
Komunztadura falta	3	9	6

5. TAULA

Datibo-komunztadura Zalgizeren testuan

Zalgize	Trinkoak	-i(n)-/*eradun	*ezan
Komunztadura	1	—	—
Komunztadura falta	—	3	1

6. TAULA

Datibo-komunztadura Oihenarten testuan

Oihenart	Trinkoak	-i(n)-/*eradun	*ezan
Komunztadura	15	2	2
Komunztadura falta	1	5	—

Oihartzabalek jadanik erran bezala (2007), Etxepareren testuan, egitura ditransitiboetako datibo-komunztadura falta perifrasietan gertatzen da bereziki; izan ere, trinkoek, gehienetan islatzen dute hirugarren argumentua (48 trinkotatik 45etan). Delako joera Oihenarten errefracuetan berresten da: egitura ditransitiboetan erabili 16 trinkoetarik batek baizik ez du datibo-komunztadura ez markatzen.

Perifrasiei doakienez, ez ditugu arras emaitza berak bi perifrasi-multzoetan. Etxepareren testuan, datibo-komunztadura maizago biltzen da **edun* laguntzailean perifrasietan (hots, gure gaur egungo perifrasi indikatiboetan) (% 52,63) **ezan* laguntzailean perifrasietan baino (% 33,33). Oihenarten errefracuek komunztadura oraindik gutxiago markatzen dute lehen perifrasi multzoan (kasuen % 29,6). **Ezan* laguntzailean perifrasiaren datu gutxiegi dugu ondorioen ateratzeko.

3.2. XVIII. mendea

Datibo-komunztadura falta XVIII. mendeko ekialdeko testuetan ere lekukotzen da. Goi- nafarreraz (Elizalde) eta zubereraz (Maizter) bildu dugu.¹⁰

- (26) sanduey cer oracio **eytendugu?** (Eliz 46)
- (27) **Ematendu** gracia ordenatuey, ongui eguiteco bere officioa (Eliz 56)
- (28) bada oracio ebec **estitugu eyten** Jangoycoari, eta bere Amari ? (Eliz 46)
- (29) Haur nuçula ni, çouregatic ossoki ene buria **oberendatu dudana** ene aitari (Mzt 365)
- (30) Bere içatia eçagut **eracitcen du** umiler (Mzt 404)
- (31) Entheleguia **emaiten du** tchipier (Mzt 404)

Ikus ditzagun ondoko taulak:

7. TAULA

Datibo-komunztadura Elizalderen testuan

Elizalde	-i(n)-/*eradun	*ezan
Komunztadura	41	5
Komunztadura falta	8	1

8. TAULA

Datibo-komunztadura Maizterren testuan

Maizter	Trinkoak	-i(n)-/*eradun	*ezan
Komunztadura	3	88	22
Komunztadura falta	2	34	16

Trinkoekin hasirik, Maizterren testuan egitura ditransitiboetako sintetikoen % 60ak markatzen du datibo-komunztadura. Elizalderen dotrinan ez da agertzen forma trinkorik egitura ditransitiboetan.

Hala Elizalde nola Maizterren testuetan, datibo-komunztadura biziki maiz betetzen da egitura ditransitiboko aditza perifrasi indikatiboa denean: % 83,67 lehenean, % 72,13 bigarreanean.

¹⁰ XVIII. mendean ere, komunztadura betetzen duten egitura ditransitibo gehienek datibozko sintagma isiltzen dute: Elizalderen dotrinan, 41 egituretatik 14k baizik ez dute adierazten, eta Maizterren testuan 110 egituretatik 15k.

Haatik, subjuntiboan eta aginteran joera desberdinak ditugu bi testuetan: Elizalderen dotrinan, komunztadura kasik sistematikoa da (8 kasutarik 9tan, hots, kasuen % 88,9), Maizterren testuan, berriz, **ezan* laguntzaileak datibo-objektuarekiko komunztadura bakanago islatzen du (% 57,9).

Ohartzen gara XVI zein XVIII. mendean datu gutxi dugula, eta bi garaie-tan euskalki beraren daturik ez izanik, garapen diakronikoaz atera daitez-keen ondorioak ez direla segurrak. Halere, uste dugu beste daturik heltzen ez zaigun bitartean behin-behineko joera batzuk agerian eman daitezkeela. XVI. eta XVIII. mendeetako datuen konparaketatik atera daitekeen lehen ondo-rioa da XVIII. mendean egitura indikatiboetan datibo-komunztadura bi mende lehenago baino maizago betetzen dela (Etxepare % 52,63, Oihenart % 28,6 vs Elizalde % 83,67 eta Maizter % 71,13). Halaber, egitura modaletan edo **ezan* laguntzailetzat duten perifrasiatan, datibo-komunztadura sistematikoa-go da, gutxienez, Elizalderen dotrinan.

4. Proposamena

Uste dugu ekialdeko hizkerak erakusten duten datibo-komunztadura fal-tak zer-ikusi handia izan lezakeela perifrasi benefaktiboan sortze-prozesuare-kin, eta berezikiago, azken honen kronologiarekin.

Ikusi dugun bezala, datibo-komunztadura tinko betetzen ez duten hiz-kerak arkaikoen mailakatzeko edo joera desberdinak dituzte adizki-moten ara-bera. Trinkoak dira datibo-komunztadura gehien betetzen dutenak, gainera proportzio handiekin, **ezan* laguntzailearen perifrasiak, berriz, gutien bete-tzen duena. Gaur egungo indikatiboetako perifrasiak, hots [-tu + *izan/*edun*], [-t(z)en + *izan/*edun*] eta [-tuko + *izan/*edun*] perifrasiak, tartean koka-tzen dira.

Perifrasi benefaktiboaren sorreraz egin dugun proposamena gogoan har-urik, pentsa dezakegu testu zaharrenek salatzen dutela hizkuntz-egoera bat zeinetan perifrasi benefaktiboa ez baitzen oraindik egitura ditransitibo guz-tietara hedatua. Egoera hartan [aditz nagusia + **edun*] eta [aditz nagusia + *-i(n)/*eradun*] perifrasiak txandakatzen ziren egitura ditransitiboetan, eta beraz, datibo-komunztadura ez zen beti betetzen.

**Ezan* aditz nagusiztat daukan perifrasiak perifrasi benefaktiboaren so-rreraren ondotik barnera zezakeen datiboetako argumentuarekiko komunzta-dura egitura ditransitiboetan. Ondoko argumentuek proposamen horren alde egiten dute: (i) testu zaharrenean datibo-komunztadura [-tu + *izan/*edun*], [-t(z)en + *izan/*edun*] eta [-tuko + *izan/*edun*] perifrasiatan baino bakanago markatzen da; (ii) euskalkiak ez datoz bat laguntzaile hirupertsonalaren for-mari dagokionez eta horrek erakuts lezake perifrasi horretan ere datibo-ko-munztadura Euskara Batu Zaharraren ondotikakoa dela: bizkaiera, arabera eta Gipuzkoako hizkera batzuek *egin* baizik ez dute erabiltzen hirupertso-nal gisa, eta **ezan* hirupertsonalik ez dute lekukotzen (Mounole 2007). Goi-

nafarrera zaharrak **erazan* dauka hirupertsonaletan.¹¹ Halaber, pentsa genezake ekialdeko hizkeren **iro* laguntzaile modala, hertsiki bipertsonala dena, franko gramatikalizatua zela eta gramatikalizatuegia pertsona-marka gehigarri baten onartzeko. Bestela erranik, euskalki multzo bakoitzak datibo-komunztadura adizkian markatzeko modu propioa garatu zuen (*egin*, **erazan* edo **ezan*-i datibo-marka gehitzea), eta ziurrenik, perifrasi benefaktiboen ondotik, eta harekiko analogiaz.

Ororen buru, iragankorretan datibo-komunztadura lehenik adizki trinkoetan agertu zatekeen¹² eta geroago perifrasietan. Mendebaldeko hizkeretan, datibo-komunztadura txandakatzerik ez dagoen ber, prozesua bururaino eraman zen.

5. Ondorioak

Lan honetan, egitura ditransitiboetako datibo-komunztadura ikuspegi diakroniko batetik aztertzea proposatu dugu. Testu zaharren miatzeak erakutsi digu gaur egungo perifrasi indikatiboetan erabiltzen diren *-i(n)-*, **edutsi* eta **eradun* laguntzaileek euskara arkaikoan erabilera beregaina ere bazutela, eta halakoetan *emaitza* adierazten zutela. Alde batetik laguntzaileen gramatikalizazio-iturria, eta bestetik perifrasi benefaktiboen tipologia gogoan izanik, ondorioztatu dugu egitura ditransitibo hauek ez direla erdietsi **edun* laguntzaileari komunztadura-atzizki bat gehituz, baizik eta *emaitza* adierazten duen aditz bat oinarrian duen egitura benefaktibo batetik eratorriak direla. Datibo-komunztadura geroago hedatu zatekeen **ezan* laguntzaile gisa duten perifrasietara, ziurrenik aurrekoekiko analogiaz. Bestela erranik, egitura ditransitiboetako adizki guztiak ez dira garaikideak eta ez dira gisa berean sortuak. Badirudi datibo-komunztadura tinko betetzen ez duten ekialdeko hizkeren datu arkaikoek hipotesi horren alde egiten dutela.

Aipamenak

Anderson, Gregory. 2006. *Auxiliary Verb Constructions*. Oxford: Oxford University Press.

Azkue, Resurrección María. 1935. «Evolución de la lengua vasca», *Euskera* XVI, 57-120.

¹¹ Delako adizkiaren azken agerraldiak xvii. mendekoak dira: *abisacenditu guciec graciae emandrazquieten launari* (Ber *Trat* 69r), *suplicacen drauçut eman drazadazun çure fauorea* (Ber *Trat* 121v), *eros draçogun* (Irñ 1609). Elizalderen dotrinan ez da laguntzaile horren aztarnarik, ezta ondoko gizaldietako goi-nafarrerazko idazkietan ere (Camino 2003: 75).

¹² Trinkoetan ere euskalkiz euskalki dauden txandakatzeak ikusirik, dela datibo-markatzailerik dagokienez, dela aurredatiboei dagokienez (*dative-flags*), datibo-komunztadura osoa ez bide da Euskara Batu Zaharretetik heldu. Borja Ariztimuñoren tesiaren emaitzen zain gaude.

- Camino, Iñaki. 2003. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Comrie, Bernard. 2003. «Recipient person suppletion in the verb ‘give’». In R. Brend, Th. N. Headland & M. R. Wise (arg.), *Language and Life*. Dallas: SIL International. 265-281.
- Comrie, Bernard & Gontzal Aldai. 2002. «Suppletion in the Old Basque verb “to give”: a typological perspective». In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. ASJUren Gehigarriak XLIV. 145-151.
- Creissels, Denis. 2006. *Syntaxe générale, une introduction typologique*. Paris: Hermès.
- Creissels, Denis. 2010. «Benefactive applicative periphrases: A typological approach». In F. Zuñiga & S. Kittilä (arg.), *Benefactives and Malefactives, Typological perspectives and case studies*. Amsterdam: John Benjamins. 29-69.
- Etxepare, Ricardo & Beñat Oihartzabal. 2009. «Bi datibo-egitura ifar-ekialdeko zenbait hizkeratan». *Lapurdum* 13, 145-158.
- Etxepare, Ricardo & Beñat Oihartzabal. 2013. «Datives and adpositions in North-Eastern Basque». In B. Fernández & R. Etxepare (arg.), *Variations in Datives: a microcomparative perspective*. Oxford: Oxford University Press. 50-95.
- Gómez, Ricardo & Koldo Sainz. 1996. «On the origin of the Finite Forms of the Basque Verb». In J.I., Hualde, J.A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards the History of Basque*. Amsterdam: John Benjamins. 235- 254.
- Haboud, Marleen. 1998. *Quichua y castellano en los Andes Ecuatorianos, los efectos de un contacto prolongado*. Quito: Ediciones Abya-Yala.
- Heine, Bernd. 1993. *Auxiliaries: Cognitive Forces and Grammaticalisation*. Oxford: Oxford University Press.
- Kuteva, Tania. 2001. *Auxiliation: An enquiry into the Nature of Grammaticalisation*. Oxford: Oxford University Press.
- Lafon, René. 1944. *Le système du verbe basque au 16^{ème} siècle*. Bordele: Delmas.
- Lakarra, Joseba Andoni. 2006. «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco». In J.A. Lakarra & J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask*. Donostia/Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia-UVP/EHU. 561-621.
- Lakarra, Joseba Andoni. 2011. «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: euskara batu zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz». In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. ASJUren Gehigarriak LXIX. 155-241.
- Mitxelena, Koldo. 1954. «Notas sobre algunos pasajes de los RS de 1596». [*Obras Completas* XI (2011)]. 131-140.
- Mitxelena, Koldo. 1981. «Lengua común y dialectos vascos». [*Obras Completas* VII (2011)]. 517-543.
- Manterola, Julen. (prestatzen). *Euskararen morfologia diakronikoko gaiak: artikulua, erakusleak eta deklinabide mugatua*. doktore tesia. EHU/UPV.
- Mounole, Céline. 2006. «Quelques remarques à propos de l’histoire des périphrases basques». In J.A. Lakarra, J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask*. ASJUren Gehigarriak. 723-738.
- Mounole, Céline. 2007. «Perifrasa zaharra mendebalde eta erdialdeko hizkeretan: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria». *ASJU* XLI-1, 67-138.
- Oihartzabal, Beñat. 2007. «Ditransitive agreement in LVP». eskuizkribua, CNRS-IKER UMR 5478.

- Steever, Sanford. B. 1980. «The genesis of polypersonal verbs in South Central Dravidian». *International Journal of Dravidian Linguistics* 9 (2), 337-371.
- Schuchardt, Hugo. 1900. «Über die Einrichtung des Neudrucks, insbesondere über die Druckfehler und Varianten bei Leizarraga». In T. Linschmann & H. Schuchardt (arg.), *I. Leizarragas Basckische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck*. Strassburg: K. J. Trübner. ix-cxvi.
- Rijk, Rudolf, de. 1985. «Un verbe méconnu». In J.L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Gasteiz: UPV/EHU. 921-935.